

{ datorrena } Maite UBIRIA BEAUMONT

Borne Erreforma, bigarren zigorra emazteentzat

Bere Erretreten Erreforma aurkeztu zuenean, Elisabeth Bornek argudio indartsua baliatu zuen: «Erreforma hau –hitza eman zuen– justuagoa da, bereziki emazteentzat». Alta, egitasmoa aztertu ondoren, letra txikiak bestelako egoera iragartzen duela iradoki dute, hala nola, L'Obs eta Mediapart hedabideek. Besteak beste, erreformaren eraginari buruzko txostenean oinarrituta, emazte gehienentzat etorkizuna ilunagoa izan daitekeela ohartarazi dute.

Txostenaren arabera, belaunaldi bakoitzeko 200.000 emaztek denbora luzeagoaz lan egin beharko dute. Gizonezkoen kasuan, ordea, belaunaldiko 170.000k. Hau da, adinaren gibelatze orokorraz gain, emazteek beste atzerapen bat jasoko dute. Datu orokorra krudela zela-koan, agian, Bornek urtero-urtero 3.000 emaztek «lehenago ahal izango dute erretreta hartu» nabarmen-tzea hobetsi zuen. Hainbat osasun langileri, ez guztiei, aitortuko omen zaien tratamendu bereziak ekarriko lu-keen hobekuntzari zenba-kiak ezarri.

Gaur-gaurkoz, erretiroa hartzeko batez besteko adi-na 62 urtekoa da gizonen ka-suan. Emazteei dagokienez, erretretara joateko batez besteko adina 62 urte eta zazpi hilabetekoa da.

Zifrak argigarriagoak dira erretreta saria aintzat har-tuz gero. Gizonezkoei dagokienez, 1.931 eurokoa da batez besteko pentsioa; emazteena, 1.154 eurokoa.

Egiturazko diskriminazio hori murriztera joko du Bor-nek aurkezturiko erreformak? Horretan ere plazaraturi-ko bilanek ez dute oso toki onean uzten Emmanuel Ma-cronen gobernu burua. Berez, gizonezkoei hobekuntza apala ekarriko lieke sistema berriak. Belaunaldien arabe-ra aldaketak izanik ere, kasurik onenean %1era ez litzate-ke helduko igoera. Emazteek zerbait gehiago jasoko lu-kete. Beren pentsioaren hobekuntza askoz jota %2ra

helduko litzatekeelako. Papurrak. Jatorrizko egoera nola-koa den kontuan hartuta, ahal da, egiazki, defendatu emazteentzat erretreta sistema berria justuagoa dela? Hori bera egin zuen, datu zeharo partzialak baliatuz, Bornek, eta bere hitzek boomerang efektua izan dute.

Amatasunari loturiko lan etenaldiak, zaintzari gehitu-tako lanaldiaren murrizketak, soldata arrakala... Horiek eta beste hainbat faktorek prekarioago bilakatzen dituz-te, oro har, produkzio-adinean dauden emazte askoren bizitzak. Izan ere, erretiroa hartzeko orduan sumatuko dituzte gehienek ondorio kaltegarrienak. Mendekota-sun ekonomikoa eta, egoera latzetan, pobreziaaren atza-parkada etor daitezkeelako lan bizitza baten bueltan.

Marko hori iraultzeko edo, besterik ez bada, aipaturi-ko faktore horiek konpentsatzeko moduko neurriak ja-

Lan-bizitzaren etenaldiak tartean, soldata apalagoak kobratzen dituzten emazte askok nekez ahalko dituzte Bornek iragarritako 1.200 euroko gutxieneko pentsioa kobratzeko baldintzak bete

sozten ditu erreforma berriak? Erantzun bakarra ezezko biribila da. Gizonezkoekin alderatuta, gaur egun fran-tses Estatuko emazteen pentsioa %30-40 baxuagoa da eta erreformaren eraginari buruz plazaraturiko haus-narketak ez du inolako hobekuntzarik aurreikusi desoreka izugarri hori murrizte aldera.

Izan ere, txostengileak argiki adierazi du zahartzaroan diru-sarrera zertxobait txukundu nahi duten emazteek aukera bakarra dutela: beranduago hartzea erretiroa.

Horrela, bide batez, Elisabeth Bornek eginiko iragarpe-na egiaztatuko dute: matematikoki, lan gehiago egiten badute gehiago kobratuko dutelako. Hori bai, eskas du-ten denbora-bizitzaren truke. •